


POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA, 2023-2027 ALDIRAKO



elhuyar
ezagutuz aldatzea



AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	03
2. Planaren oinarriak eta baliabideak	07
3. Planaren balorazioa eta diagnostikoa.....	11
4. Euskararen erabilera normalizatzeko plana.....	16
5. 2023-2027 aldirako Plan Estrategikoa	19

1. SARRERA

1.1. Marko juridikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak, Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen bitartez, euskararen erabilera soziala sustatzeko politika arautu zuen. Lege horretan xedatzen da herritar guztiek eskubidea dutela herri administrazioarekin dauzkaten harremanak nahi duten hizkuntza ofizialean izateko. Horretarako, legeak herri aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatzeko. Ondorioz, legearen hastapen edo oinarririk funtsezkoena honako hau da: **hizkuntza-eskubideak herritarrenak dira, eta Administrazioari dagokio eskubide horiek betetzea eta betetzen direla bermatzea.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea, besteak beste, euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren oinarria izan zen, eta lanpostuen zerrendetan jaso beharreko hizkuntza-baldintza eta betebeharren bidez, aurrerapauso nabarmena egin zen euskara-gaitasuna zuten langile kopuruan. Diziplina araubidearen atalean ere, **hizkuntzagatik diskriminazioa dakarren edozein jarduketa hutsegite larritzat tipifikatu zen.**

6/1989 Legea eguneratu zuen Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legean, **hizkuntzagatik diskriminazioa dakarren edozein ekintza falta oso astuna** dela berrestez gain, euskara erabiltzeko hizkuntza-normalizazioarekiko konpromisoa arautzat hartzen da, baita horretarako neurriak ezarri eta betetzen direla gainbegiratzea ere. Horretarako, plangintzaldi bakoitzerako lortu nahi diren helburuak, hartu beharreko neurriak eta jarri behar diren bideak finkatu behar direla ezartzen da.

1992an, Europako Kontseiluak Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna onartu zuen, eta, orduetik, hizkuntza-eskubideekiko errespetua jasota eta aitortuta dago. Espainiako Erreinuak 2001ean berretsi zuen **administrazio guztiei dagokiela eremu urriko hizkuntzetan mintzatzen diren herritarrei haien hizkuntzan harrera egitea eta zerbitzua eskaintzea.**

Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu zuen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak elementu berriak erantsi zizkion 6/1989 Legeari, eta honako hauek arautu zituen: bete beharreko gutxieneko baldintzak, plangintzaldiak eta epeak, bost urtaldirako planak egitea... Horrela, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak ezarri zituen 18. atalean; hau da, normalizaziorako helburuak betetzeko hizkuntza-politika eta horren jarraibide nagusiak ezarri zituen, besteak beste, honako hauek:

- Egungo hizkuntza-egoera.
- Lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak.
- Euskara-maila eta hizkuntza-gaitasunaren prozesuari buruzko informazioa.
- Administratuekiko eta gainerako erakundeekiko ahozko zein idatzizko harremanetan, jendaurreko ekitaldietan, argitalpen-arloetan, hizkuntza-paisaian, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena daukaten kontratazioetan eta bestelako jarduera esparruetan euskararen erabilera eta trataera (hizkuntza-irizpideak).

Bestalde, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legeak eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuak ere, ezarri zuten erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza-ofizialen erabilera bermatu behar dutela.

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 13. artikulua pertsonen eskubideak xedatzen ditu administrazio publikoekiko harremanetan, eta norberaren autonomia erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzeko eskubidea aitortzen die herritar guztiei.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 25. artikuluan (Herritarrekiko harremanak eta gardentasuna), 2. puntuak zera jasotzen du: Herritarrekiko harremanetan, 10/1982 Legeak aitortutako hizkuntza-eskubideak hartuko ditu aintzat Euskal Autonomia Erkidegoko poliziak (10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa). **Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoak mendeen daukaten administrazioak ahaleginduko dira euren zerbitzura aritzen diren langileak behar bezala gaitzen, gizarte elebidun batean zerbitzua eman dezaten**; horretarako, behar diren neurriak hartuko dituzte, eta sustatuko dute kidego horietan euskara erabil dezaten. Nolanahi ere, herritarren arretan, herritarrek berak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Entzunaldi-tramiteak igaro dituen EAEko sektore publikoaren euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen dekretu berriaren arabera, 86/1997, 30/1998 eta 75/2012 dekretuak indarrik gabe geratuko dira, eta EAEko erakunde, sozietate eta elkarte publiko guztiek 10 urteko epealdia izango dute ezarpen berriekin lerrokatzeko.

Horregatik Plan hau erabat estrategikoa da etorkizun ertainean etorriko den arautegi berrirako oinarriak eraikitzen hasteko, hala nola:

- PLEAko **langile guztiek EAEko bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko gaitasuna** eskuratzea.
- **Hizkuntza-irizpide berriak onartzea** eta haien betetze-mailaren jarraipena sistematizatzea.
- Planaren eragin-eremuaren fokua aldatzea: PLEAk eskaintzen dituen **formazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan emateko estrategia adostea** eta aktibatzea.
- Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plan berriak Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-normalizazioaren **kudeaketa eta jarraipenerako adierazle-sistema berrien arabera diseinatzea**.

1.2. Euskal Administrazioaren testuingurua

Esan bezala, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio guztiei, baita hori gauzatzeko jarraibideak ere. Horrela, 1990. urtean, EAEko Administrazio Orokorraren I. Plangintzaldia ezarri zen, eta 2023an VII. Plangintzaldira iritsi gara.

Azken urteetako plangintzaldiek euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratzeko kudeaketa-eredu batera ekarri gaituzte. Ardatz nagusietako bat da legeak erakundeei ezartzen dizkien eginkizunak betetzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Horretan laguntzeko, besteak beste, Euskara Planak egituratzeko adierazle-sistema berria ezarri zen 2018an, Erreferentzia Marko Estandarra.

VII. Plangintzaldirako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara-planen egitura berria zehaztu du. Oinarrian Erreferentzia Marko berria izango dugu; hau da, Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako (aurrerantzean, KEMEN). Eredu berria da, eta metodologia ezberdin bati erantzuten dio, bai planteamenduan, baita aplikazioan ere.

Lehen plana onartu zenetik 33 urte igaro dira, eta hamaika aurrerapen egin da, baina, euskararen kanpo- zein barne-erabileran, badago oraindik zer hobetu hizkuntza-ofizialen kudeaketan. Gainera, euskal gizartea gero eta elebidunagoa da, eta gizartearen zerbitzupean dagoen Administrazioak zerbitzu aurreratua eta kalitatezkoa bermatu nahi badu, errealitate horretara egokitze beharra dauka.

1.3. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako testuingurua

Pausu garrantzitsuak eman ditu euskarak PLEAn azken urteotan, izan ere, erakunde publikoetan euskararen normalizazioaren bilakaera neurtzeko baliatzen diren adierazleei erreparatuta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren emaitzak Eusko Jaurlaritzako sailen eta erakunde autonomiadunen batez bestekoarekiko bi puntu gainetik daude, betetze-mailaren % 67,1 eta % 65,1, hurrenez hurren.

PLEAko langile gehienak euskaraz nahiz gaztelaniaz lan egiteko gai dira gaur egun, Akademiak era guztietako baliabideak ditu bertan egiten diren lanak hizkuntza ofizial batean zein bestean egin ahal izateko, PLEAko eragile guztiek gero eta barneratuago dute erakundeak EAEko bi hizkuntza ofizialetan eskaini behar dituela zerbitzuak eta badira hainbat atal euskaraz funtzionatzen dutenak.

2019. urtean, 27. promozioan euskara-mailaren C1 egiaztatu zuten ertzaingaiak euren formazioaren edukien % 70 inguru euskaraz jaso zuten lehen aldiz. 2022. urtean, 30. promozio bateratuan euskara-mailaren C1 egiaztatu zuten guztiek jaso zuten trebakuntza osoa euskaraz.

Horrek erakusten digu gauza asko ondo egin direla, euskararen normalizazioa norabide egokian doala, baina baita oraindik urrats azpimarragarriak ematen jarraitu beharra dagoela ere, batez ere, PLEAk eskaintzen duen formazio guztia euskaraz ere eman ahal izateko estrategia adostea eta aktibatzea.

1.4. PLEAren xedea eta antolakuntza

Xedea --- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren xedea da Jaurlaritzak Segurtasun Publikoaren arloan duen prestakuntza-, hautaketa-, ikerketa- eta berrikuntza-politika gauzatzea, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari dagozkion arloetan, bai Babes Zibilaria eta Larrialdiei dagozkienetan.

Antolakuntza --- Euskadiko Segurtasun Publikoren Sistema Antolatzeari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak (2012ko uztailaren 6ko EHAA), II. kapituluan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia lantzen den II. tituluaren Gobernu, Antolakuntza eta funtzionamenduan, Akademiaren antolakuntza-esparrua eta esparru funtzionala ezartzen ditu.

Aipatutako II. Kapituluaren honakoa dio hitzez-hitz: *“segurtasun publikoaren sistemako partizipazio- eta koordinazio-organoak datoz zehazturik, hala nola, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseilua; eta Segurtasunean Parte Hartzeko herri-kontseiluak (herritarrek ere segurtasun publikoko politikan parte hartuko dutela bermatzen dutenak).*


Organo horiei esker, herri-administrazio guztiek, agintariek, polizia-kidegoek eta segurtasunarekin zerikusia duten gainerako zerbitzu publikoek parte hartuko dute segurtasun publikoko politikak diseinatzen, aplikatzen eta ebaluatzen.

Lan hori egingo dute, baina, arlo honetan jarduten duten beste organoei ez eginkizunetan ez aginpidetan ezer kendu gabe, gaur egungo legediaren arabera hainbat organo baitago segurtasun publikoan eta polizian, ausazko jokoetan, ikuskizunetan eta jolas-jardueretan, larrialdietan eta babes zibilean, zirkulazioan eta bide-segurtasunean eta baita segurtasun pribatuan ere.

Legeak zehazten du partizipazioko organo horiek eta planifikazioko tresnek zer-nolako harremana eduki behar duten segurtasun publikoarekin zerikusia duten beste organoekin, hala nola bide-segurtasunean, babes zibilean, jokoetan, genero indarkerian edo antzeko beste arloetan lan egiten duten organoekin.

Lege honen arabera, herritarrek berak ere parte hartuko du bere segurtasun-arazoak konpontzeko orduan, eta, horrela, sistemak hobeto ulertu ahal izango du herritarren segurtasun-gabezien nondik norakoa. Lege honen arabera, herritarra bera ere bada bere segurtasuna eraikitzeko arduetan bide-lagun. Horra hor, helburu horretan lagungarri, tokian tokiko segurtasunean parte hartzeko kontseiluak sortu eta segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar-ekimenen Bulegoa eraberritzea”.

1.5. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako organigrama



2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN OINARRIAK ETA BALIABIDEAK EUSKO JAURLARITZAKO VII. PLANGINTZALDIKO IRIZPIDEEI JARRAIKI

2.1. Plangintzaldi berrirako gidalerroak

PLEAn Euskararen Erabilera Normalizatzeko planak Erreferentziazko Marko Estandarraren (EME) arabera garatu dira azken plangintzaldietan. EME lanerako markoa da, laguntza-koadro bat erakundean hizkuntzaren presentzia eta erabilera normalizatzeko elementuak identifikatu eta ordenatzen dituen modu eskematiko eta ordenatuan.

Lehenago aipatu dugun bezala, baina, entzunaldi-tramiteak igaro dituen EAEko sektore publikoaren euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen dekretu berriaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek 10 urteko epea izango dute molde bakarrera lerrokatzeko. Hori aintzat hartuta, PLEAko Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2023-2027 aldirako Plana dekretu berriaren parametro nagusiak aintzat hartuta diseinatu da.

EAEko Administrazio Orokorraren VII. plangintzaldia erabilera-planen **kudeaketaren jarraipen sistematikoa egiteko plangintzaldia** izango da, eta euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratzeaz gain, kudeaketa-eredu berria inplementatuko da.



Muin nagusietako bat izango da legeak entitateei ezartzen dizkien eginkizunak betetzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Horretan laguntzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak VII. Plangintzaldirako marko eta metodologia berria proposatu ditu: **Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako (KEMEN)**. Marko horrek bi ardatz nagusi ditu: **Kudeaketa** eta **Erabilera**.

Marko berrian lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari; hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Baina kudeaketa ez da helburua, baliabidea baizik.

Beraz, KEMENek kudeaketa eta jarraipenerako adierazleen sistema eguneratzea ekarri du. Honako hauek dira marko berriaren ezaugarri nagusiak:


- Edozein erakundetan, euskararen erabilera kudeatu eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen ditu.
- Kudeaketa-markoak hartu du zentraltasuna, betiere euskararen erabilera erdiesteko.
- Erabilerari dagozkion adierazleetan, eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...
- Adierazleen formulazio positiboa egin da, normalizazio-prozesuaren norabidea markatzeko asmoz.
- Erakunde bakoitzak markoa bere errealitate, ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukera dauka.
- Aginte-panela: EAEko sektore publikoko erakundeen jarraipenerako gutxieneko adierazleak biltzen dituen taulari (14 adierazlez osatuta) aginte panela deritzo.

Hauxe da KEMEN marko osoa:




Normalizazioko lan-ildo berriei jarraiki, hurrengo 14 adierazle esanguratsuenen (Aginte-panela) jarraipena egin beharko du hizkuntza politikaz arduratzen den sailak; hauek dira adierazle horiek:

KUDEAKETA



ERABILERA





2.2. Lanerako egiturak

Erabilera Plana behar bezala garatu ahal izateko egitura hauek izango ditu:

- Itzulpen eta Hizkuntza Normalkuntza Zerbitzua
- PLEAn Euskararen Erabilera Normalizatzeko Talde Eragilea
- PLEAn Euskararen Erabilera Normalizatzeko Batzordea Eragilea
- PLEAn Euskararen Erabilera Normalizatzeko Zuzendaritza Batzordea

ITZULPEN ETA HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ZERBITZUA	
PARTAIDEA	○ Itzultzailea eta Hizkuntza Normalkuntzako teknikaria.
FUNTZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Hizkuntza-politikarekin lotutako ekintzak antolatu, bideratu eta koordinatu. ○ ELEBI programa koordinatu. ○ Euskara-ikastaroak koordinatu. ○ Hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak proposatu. ○ Itzulpenak.

PLEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO TALDE-ERAGILEA	
PARTAIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Itzultzailea eta Hizkuntza Normalkuntzako teknikaria. ○ Kanpo-aholkularia.
FUNTZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAn Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren diseinua proposatu, eta onartutakoan haren garapenez eta segimenduaz arduratu. ○ Esku-hartzeak koordinatu eta haien segimendua egin. ○ Komunikazio-planaren diseinua egin eta garapena bermatu. ○ Proiektuaren ekintzak koordinatu eta bideratu. ○ Prozesua eta emaitza baloratu eta txostenak idatzi. ○ PLEAko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Zuzendaritza Batzordearekin koordinatu.
BILERAK	○ Astero aurrez aurre, eta behar adina, telefonoz nahiz elektronikoki.

PLEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO BATZORDE-ERAGILEA	
PARTAIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Itzultzailea eta Hizkuntza Normalkuntzako teknikaria. ○ Kanpo-aholkularia. ○ Euskara-zerbitzuko arduraduna. ○ Berdintasun-teknikaria. ○ Informatika Arloko ordezkaria. ○ Ebaluazio Arloko ordezkaria. ○ Polizia Teknikak eta Taktikak Ataleko ordezkariak.
FUNTZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAn Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren jarraipena egin eta neurri zuzentzaileak proposatu. ○ PLEAko izaera orokorreko planak aztertu eta haietan hizkuntza-ikuspegia txertatu.
BILERAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Hilean behin, gutxienez, eta beharrezkoa ikusten den adina.

PLEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZA BATZORDEA	
PARTAIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia. ○ PLEAko Administrazio eta Zerbitzuen zuzendaria. ○ Itzultzailea eta Hizkuntza Normalkuntza Ataleko teknikaria. ○ Barnetegiko burua. ○ Ebaluazio Arloko burua. ○ Araubide Juridiko, Kudeaketa Ekonomiko eta Gai Orokoretako Dibisioko burua. ○ Antolakuntza eta Sistemen Arloko burua. ○ Langileria eta Araubide Arloko burua. ○ Kontratazio eta Aurrekontu Arloko burua. ○ Ikasketa eta Plangintza Dibisioko burua. ○ Prestakuntza eta Larrialdien kudeaketa arloko burua
FUNTZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Erabilera Plana onartu eta haren segimendua egin. ○ Derrigortasun-daten eta hizkuntza-eskakizunen proposamena onartu. ○ Erabilera Planaren erabaki estrategikoak hartu.
BILERAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Urtean bi, gutxienez.

PLEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO ELKARLANERAKO BATZORDEA	
PARTAIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia. ○ PLEAko Administrazio eta Zerbitzuen zuzendaria. ○ Ikasketa eta Plangintza Dibisioko burua. ○ Itzultzailea eta Hizkuntza Normalkuntza Ataleko teknikaria. ○ Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea. ○ EJKo Herri Administrazioetan Hizkuntzaren Normalizaziorako zuzendaria. ○ Segurtasun Saileko Giza Baliabideen zuzendaria ○ Arabako Lurralde burua, Ertzaintzan prestakuntza koordinatzeko arduraduna. ○ Ertzaintzako euskara-koordinatzailea
FUNTZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Erabilera Planaren segimendua egin. ○ Ertzaintzaren eta Akademiaren arteko koordinazio-lanak egin. ○ Erabilera Planaren erabaki estrategikoak garatzen lagundu.
BILERAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Urtean bat, gutxienez.

3. PLEAn EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2018-2022 ALDIKO PLANAREN BALORAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA

PLEAn 2018-2022 aldiko Erabilera Planaren (Eusko Jaurlaritzako VI. planarekin bat egin duena) ebaluazioa da plan berriaren abiapuntua. Ebaluazioa egiteko, planean ezarritako helburuen betetze-maila eta emaitza horren arrazoiak aztertu dira, ondo egindakoak indartzeko eta hobetu beharrekoak zuzentzeko.

PLEAren 2023-2028 aldirako Erabilera-plana KEMEN metodologiaren parametroei jarraiki egingo denez, atal honetan, 2018-2022 aldiko Erabilera Planaren ebaluazioa KEMENen parametroetara ekarri dugu. Honako hau da plan berriaren abiapuntua (diagnostikoa):

1. ardatza: **KUDEAKETA**

- **EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA**

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Erabilera-plana PLEAko Zuzendaritzak onartu zuen eta pandemia lehertu arte haren jarraipena egin zuen hainbat Zuzendaritza-bileratan. Hala ere, handik aurrera Zuzendaritza batzordean ez zaio erabilera-planari jarraipenik egin. ○ PLEAko lanpostu estrategiko askotan dauden langile eta arduradunek ez dute behar adinako euskara-gaitasunik. ○ PLEA formazioa eskaintzen duen gunea izanik, oraindik ere formazio gehien-gehiena gaztelaniaz eskaintzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko Erabilera-planaren adierazleen emaitzak Eusko Jaurlaritzako sailen eta erakunde autonomiadunen batez bestekoarekiko bi puntu gaitetik daude, betetze-mailaren % 67,1 eta % 65,1, hurrenez hurren. ○ PLEAko langile gehienak euskaraz nahiz gaztelaniaz lan egiteko gai dira, Akademiak era guztietako baliabideak ditu bertan egiten diren lanak hizkuntza ofizial batean zein bestean egin ahal izateko. ○ PLEAko eragile guztiek gero eta barneratuago dute erakundeak EAEko bi hizkuntza ofizialetan eskaini behar dituela zerbitzuak eta badira hainbat atal euskaraz funtzionatzen dutenak. ○ PLEAn karrera egiteko planean euskararen C1 maila egiaztatu zuten ertzaingaien euskaraz hasi dira jasotzen trebakuntza osoa. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko langile askok, oro har, ez dute euskararen normalizazioa eta erabilera haien lanarekin lotutako elementu estrategiko gisa hartzen. ○ PLEAko ikasleekin harremana eta harrera-funtzioa duten langile eta ertzain asko ez dira gai haien lana euskaraz egiteko, eta, ondorioz, hartzailak gaztelaniarekin lotzen dituzte funtzio horiek. ○ PLEAko ikastaroen % 98,7 gaztelaniaz eskaintzen dira. Erabilera-plana indarrean egon den aldiak Akademiatik pasa diren 31.836 pertsonetatik 408k soilik jaso dute formazioa euskaraz.

Helburu estrategikoa

- Euskararen kudeaketa PLEAren kudeaketa-sisteman integratzea, Erabilera Planari jarraipena egiteko eta euskarak Akademian dituen erronkak Zuzendaritzak berak bideratzeko.
- PLEA eskaintzen duen formazioa euskaraz ere eskaintzeko estrategia adostea.

• **LIDERGOA**

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> Plangintzaldiaren hasieran, PLEAko Zuzendaritzak Erabilera-planaren diseinuan, garapenean eta jarraipenean hartu zuen parte. Baina, pandemiak baldintzatu egin zuen guztia eta orduz geroztik ez dira bilera horiek errepikatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Mantentze-lanak, Psikologia eta soziologia atala, Gidaritza atala, Defentsa Teknikak atala eta Babes zibila daude aurreratuen euskararen kudeaketan. 	<ul style="list-style-type: none"> Urte hauetan ez da lortu PLEAko Zuzendaritzak erabilera-planaren jarraipen sistematikoa egitea. PLEAko arduradun askok, % 50ek inguruk, ez dute lanpostuko funtzioak euskaraz betetzeko gaitasunik.

Helburu estrategikoa

- PLEAko arduradunek EP ezagutzea, bere egitea eta dagokien ardura-gunean hura bultzatzea eta haren segimendua egitea.

• **LANGILEAK**

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> Langile gehienek ezagutzen dituzte hizkuntza-irizpideak eta, hein handian, ahalegina egiten dute hizkuntza-irizpideak betetzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Langile gehienek ezagutzen dituzte hizkuntza-irizpideak eta, maila handian, bete egiten dituzte. 	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-irizpideak betetzen direla bermatzeko jarraipen-sistema eraginkorra adostea.

Helburu estrategikoa

- Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak ezagutzea eta betetzea.

• **GAITASUNA**

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> Langile gehienak gai dira haien hizkuntza-funtzioak euskaraz ere egiteko, baina ardura-gune eta lanpostu estrategikoetan badira euskara-gaitasunik ez dutenak eta, ondorioz, ezin da, hainbatetan, lan- eta zerbitzu-hizkuntza euskaraz izan. Promozio berrietako ertzaingai gehienek PLEAko 1. edo 2. HE egiaztatzen dute, baina urtero kopuru esanguratsu batek ez du euskara-gaitasunik, eta, horrek baldintzatu egiten du unitateetan euskaraz lan egiteko aukera. 	<ul style="list-style-type: none"> Hamar langiletik hiruk egiaztatuta dute hizkuntza-eskakizunen bat. Langileen erdia gai da laneko testuak euskaraz sortzeko eta hamarretik bi gai dira laguntzarekin. Gero eta gehiago dira edozein lan euskaraz ere egiteko gaitasuna duten langileak. 	<ul style="list-style-type: none"> Jendaurreko izaerako hainbat arlotan (Barnetegia, Leihatila, Kontratazio-arloa, Ebaluazio-arloa, prestakuntzako taldekideak...) PLEAko ikasleak artatzen dituzten langile askok ez dute hizkuntza-gaitasun egokirik eta, ondorioz, harreman horiek gaztelaniaz izaten dira nagusiki. Zerbitzu-eginkizunetara datozen ertzainei (barnetegia, ebaluazioa, irakasle...) euskararen B2 maila eskatzen zaie, baina gehienek diote ez direla gai klaseak euskaraz emateko.

Helburu estrategikoa

- Langile guztiek -jendaurreko eta ardura-funtzioetan daudenak, batez ere- haien lana euskaraz ere egiteko gaitasuna izatea.

• **EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA**

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Aurreko plangintzaldia gakoa izan da PLEAn karrera egiteko planean euskararen C1 maila egiaztatu zuten ertzaingaien formazioa euskaraz jasotzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Norabide egokia finkatu da. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ 2019an hasitako bidea gainerako formazio-ekintzetara zabaltzea.

Helburu estrategikoa

- PLEAk normalizaziorako estrategia integrala adostea epe jakin batean formazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan eman ahal izateko.

• **HIZKUNTZA-KLAUSULAK**

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Kontratu eta hitzarmen batzuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira, baina ez da beti haien betetze-mailaren jarraipen sistematikoa egiten. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Zenbait kontratutan hizkuntza-klausulak txertatzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Hizkuntza-klausulak ez dira kontratu guztietan txertatzen. ○ Ez da hizkuntza-klausulen betetze-mailaren jarraipen sistematikoa egiten.

Helburu estrategikoa

- PLEAko kontratu eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak ezartzea eta haien jarraipenerako sistema zehaztea.

2. ardatza: ERABILERA

ZERBITZU-HIZKUNTZA

• **IRUDIA**

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko irudia elebiduna da eta euskarari ematen dio lehentasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko irudian euskararen erabilera bermatuta dago, eta normalean bete egiten dira irudiarekin lotutako hizkuntza-irizpideak. 	

Helburu estrategikoa

- PLEAko irudiari adi jarraitzea, aldakorrari batez ere, erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta hizkuntza-berdintasuna lortzeko.

• **IKASLEEKIKO HARREMANAK**

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> Langile gehienek euskara-gaitasuna dute eta euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete ikasleei haiek hizkuntza aukeratu baino lehen, baina badira hobetzeko arlo garrantzitsu batzuk. 	<ul style="list-style-type: none"> PLEAn karrera egiteko planean euskararen C1 maila egiaztatu zuten ertzaiingaien euskaraz hasi dira jasotzen trebakuntza osoa. 	<ul style="list-style-type: none"> PLEAko ikastaroen % 98,7 gaztelaniaz eskaintzen dira. Erabilera-plana indarrean egon den aldiak Akademiatik pasa diren 31.836 pertsonetatik 408k soilik jaso dute formazioa euskaraz.
Helburu estrategikoa		
<ul style="list-style-type: none"> Ikasleen hizkuntza-eskubideak bermatzea (ahoz eta idatziz) eta hizkuntza-berdintasuna lortzea ikasleak PLEAren harremanetan jartzen direnean. 		

LAN-HIZKUNTZA

• **BARNE-HARREMANAK**

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> PLEAn, lan-hizkuntza eta harreman informalek gaztelaniaz dira nagusiki; hainbat arlotan, hala ere, asko dira euskaraz jarduten diren langile eta arduradunak. Lanarekin lotutako hizkuntza-paisaia eta barne-informaziorako edota komunikaziorako tresnak euskaraz daude ia erabat, ele bietako ereduak dute. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskara gero eta gehiago erabiltzen da PLEAn eta asko dira euskaraz jarduten duten langileak. 	<ul style="list-style-type: none"> Lan-bilera gehienak gaztelaniaz egiten dira, ohituragatik eta, askotan, parte hartzen duten guztiek euskara ulertzen ez dutelako. Lankideen arteko harremanen erdiak, gutxienez, gaztelaniaz izaten dira. Aplikazio informatikoak gaztelaniaz erabiltzen dira nagusiki. Laneko prestakuntza gaztelaniaz jasotzen da nagusiki.
Helburu estrategikoa		
<ul style="list-style-type: none"> PLEAn lankideen arteko harremanean (ahoz eta idatziz) euskarak presentzia irabazten jarraitzea arlo eta eremu gehiagotan. 		

• **KANPO-HARREMANAK**

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> PLEAK beste eragileekin duen harremanean euskarak presentzia handia du, herri-erakundeekin batez ere, baina entitate pribatuekin, esaterako, jaitsi egiten da euskararen presentzia. 	<ul style="list-style-type: none"> Herri-erakundeekiko harremanak euskaraz edo ele bietan da nagusiki. Prozedura administratiboetan eta herritarrekiko harremanetan erabilitako 	<ul style="list-style-type: none"> Entitate pribatuekiko harremanak gaztelaniaz da nagusiki

dokumentu gehienak estandarizatuta daude

Helburu estrategikoa

- Euskaraz dakiten erakunde eta eragileekin harremanak euskaraz izatea, ahoz zein idatziz.

• PRESTAKUNTZA

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko langileek gaztelaniaz jasotzen dute batez ere prestakuntza orokorra. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Prestakuntza euskaraz jasotzeko gaitasun handia dago PLEAn. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Laneko prestakuntzan gaztelania da hizkuntza nagusia: azken urtean, esaterako, prestakuntzaren % 18 soilik jaso da euskaraz.

Helburu estrategikoa

- B2tik gora egiaztatu duten langileek prestakuntza orokorra euskaraz jasotzea.

• BALIABIDE INFORMATIKOAK

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAren aplikazio informatiko gehienak euskaraz ala gaztelaniaz erabil daitezke. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAren aplikazio informatiko gehienak euskaraz ere erabili daitezke. ○ PLEAren webgunea euskaraz abiatzen da defektuz. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko langile gehienek gaztelaniaz erabiltzen dituzte aplikazio informatikoak, hamarretik zazpi.

Helburu estrategikoa

- C1 eta B2 egiaztatuta dituzten langileek baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea.

• SORTZE-HIZKUNTZA

Egoera	Indarguneak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko langile gehienak gai dira haien lana euskaraz ere egiteko, baina gaztelaniaz sortzen dute nagusiki. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko langile gehienak (hamarretik zazpi) gai dira haien lana euskaraz ere egiteko eta hamarretik hiruk euskaraz sortzen dute. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko langile gehienak (hamarretik zazpi) gaztelaniaz sortzen dituzte dokumentuak.

Helburu estrategikoa

- Euskaraz sortzeko gaitasuna duten langileek euskaraz sortzea, betiere euskaraz lan egiteko gaitasuna hobetzeko.

4. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (2023-2027)

4.1. Eragin-eremua

PLEAren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren eragin-eremukoak dira PLEAko langile laboral guztiak, zerbitzu aktiboan ari direnak.

4.2. Planaren eragin-epea

VII. plangintzaldiaren irizpideari jarraiki, plan hau onartzen den unetik (2023ko abendutik) 2027ko abenduaren 31 bitartean izango da indarrean.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu zuen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, besteak beste, honako hauek arautu zituen: bete beharreko gutxieneko baldintzak, plangintzaldiak eta epeak, bost urtaldirako planak egitea eta euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra.

4.3. Planaren xedea

PLEAn euskararen erabilera normalizatzeko prozesua egituratzea; alegia, hizkuntza-planifikazioa, egiturak eta irizpideak arautzea Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko guztiei euskararen erabilera normalizatzeko eskatzen zaizkien parametroetarako bideari ekiteko.

4.4. Planaren oinarriak eta helburuak

Plan honek helburu hauek lortu nahi ditu:

- PLEAko arreta eta formazioa bi hizkuntza-ofizialetan jasotzeko eta biak erabiltzeko eskubidea bermatzeko estrategia adostea eta aktibatzea.
- Euskara erabilera orokorreko zerbitzu- eta lan-hizkuntza izatea PLEAren jardunean ezarritako hizkuntza-irizpideen arabera.

Horretarako, hizkuntza-normalizazioaren kudeaketa eta jarraipenerako Eusko Jaurlaritzaren adierazle-sistema berriarekin lerrokatutako bigarren mailako hainbat arlo landuko dira, aipatutako dimentsio bi horietan:

4.5. Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak eta betetze-maila (derrigortasun-indizea)

EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 16. artikulua xedatutakoaren arabera, hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-datak, gizartearen eskaerari modu egokian erantzuteko beharizanen arabera zehaztuko dira. Hizkuntza-eskakizunen derrigortasun datak PLEAko lanpostu guztiak hartzen ez dituzten bitartean, plangintzaldi bakoitzean lanpostuei, hala badagokie, derrigortasun-data ezartzean, kontuan hartuko dira aldi horretan PLEAren unitate bakoitzaren jarduera eremuei dagozkien bete beharreko indizeak.

Bigarren xedapen gehigarrian azalduta dator derrigortasun-daten zehaztapena urtean-urtean egingo dela, lanpostuen zerrendaren aldaketa egokia eginez eta dagokien derrigortasun-data sartuz.

EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 16. artikulua xedatutakoaren arabera, honela sailkatzen dira administrazio-atalak:

JENDAURREKO ATALAK	GIZARTE-MAILAKO ATALAK	ATAL OROKORRAK	ATAL BEREZIAK
Lanpostuko funtzio gehienak herritarrekin harreman zuzenean oinarritzen dira	Harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte-mailakoak direnean.	Lanpostuko funtzio gehienak administrazio barruan betetzen dituztenak.	Izaera berezikoak.

ATALEN IZAERA	PLEAko ARLOAK
JENDAURREKOAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Leihatila
GIZARTE IZAERAKOAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Barnetegia ○ Ebaluazio arloa ○ Museoa ○ Kontratazio arloa: kontratazio-gunea ○ Araubide Juridikoa eta langileen arloa ○ Ikasketa eta plangintza: Irakasleak ○ Ikasketa eta plangintza: Administraziokoak
OROKORRAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Zuzendaritza ○ Antolakuntza eta garapen arloa
BEREZIAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Kontratazio arloa: Inprenta ○ Kontratazio arloa: Mantentze-lanak ○ Kontratazio arloa: Ostalaritza, jangela (+kafetegia) ○ Osasun-zerbitzua (Erudio) ○ Ibilgailuen atala (Erudio)

Atalen sailkapena, **lehentasunaren** arabera

	LANGILEAK
L1	<ul style="list-style-type: none"> ○ Leihatila ○ Ikasketa eta plangintza: Irakasleak ○ Barnetegia
L2	<ul style="list-style-type: none"> ○ Zuzendaritza ○ Ebaluazio arloa ○ Museoa ○ Kontratazio arloa: kontratazio-gunea ○ Araubide Juridikoa eta langileen arloa ○ Ikasketa eta plangintza: Administraziokoak
L3	<ul style="list-style-type: none"> ○ Antolakuntza eta garapen arloa ○ Kontratazio arloa: Inprenta ○ Kontratazio arloa: Mantentze-lanak ○ Kontratazio arloa: Ostalaritza, jangela (+kafetegia) ○ Osasun-zerbitzua (Erudio) ○ Ibilgailuen atala (Erudio)

EAEko hizkuntza-politikaren ardura duen organoaren irizpide berriak dira lanpostuen komunikazio- eta zereginen-azterketa egin beharra, besteak beste, harreman-sareak definitzeko (ahozkoak eta idatzizkoak); horren arabera, egokitu beharko dira lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak planak irauten duen bitartean.

Bestalde, gogoratu behar da, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 11. artikulua 3. paragrafoak ezarritakoaren ondorioz, derrigor bete beharreko indizea EUSTATEk 2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikan euskararen ezagutza-mailari buruz jasotako datuetatik atera dela (2022ko azaroaren 14ko EHAAan argitaratu zen estatistika ofizial horren emaitzari buruzko iragarkia). Ildo horretatik, kontuan hartu behar da gaur egun Eusko Jaurlaritzari, PLEari barne, dagokion indizea % 52,85 dela. Hortaz, horixe da datozen bost urteetarako indizea.

LANGILEAK	DERRIGORTASUN-DATADUNAK	EGUNGO DERRIGORTASUN-DATEN EHUNEKOA	VII. PLANAREN NAHITAEZKO DERRIGORTASUN-INDIZEA
128	88	61	(+ 7) 68
% 100	% 68,75	% 47,65	% 52,85

VI. plangintzaldiaren amaieran, 128 lanpostuetatik 61ek zuten derrigortasun-data ezarrita, hau da, guztizkoaren % 47,65. VII. Plangintzaldiko indizeari erreparatuta, 7 lanpostu gehiagotan ezarri beharko lirateke, gutxienez.

5. 2023-2027 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Hirugarren puntuan esan bezala, 2018-2022ko planaren ebaluaziotik abiatuta, 2023ko diagnostikoa osatu da, plan estrategiko berriaren abiapuntua, hain zuzen ere.

Aurreko planaren ebaluazio-datuetan oinarrituta KEMENeko arlo guztiei buruzko hausnarketa kualitatiboa egin da. Horretarako, arloz arloko balorazioa egin da eta egungo egoeraren berri emateaz gain, indarguneak eta zer hobetuak identifikatu dira. Hausnarketa kualitatibo horri esker, 2027ra bitartean lortu nahi diren helburu estrategikoak identifikatu ahal izan dira.

Hirugarren puntuan azaldu den bezala, KEMEN markoak, guztira, 46 adierazle ditu, eta, horietatik 14 adierazle-panelean daude. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jarraituko dituen 14 adierazle horiez gain, KEMEN markoaren beste 22 adierazle eta PLEAren berezko beste 3 adierazle txertatu dira.

Adierazleen jatorria ezberdintzeko ondoko taularen koloreak erabili dira:

KEMEN_AGINTE PANELA

KEMEN_BESTEAK

PLEA

Jarraian, helburu estrategiko horiek lortzeko erronka eta adierazleen azalpena jaso da (Ikus. Eranskinak_Adierazleak neurtzeko sistema).

6.1. ERRONKAK / HELBURU ESTRATEGIKOAK / ADIERAZLEAK

KUDEAKETA

- **ERRONKA:** Hizkuntzen kudeaketa aurreratua aplikatzea, lidergoan eraginda, PLEAko unitate guztien ohiko kudeaketan integratuta, bestelako plangintzekin uztartuta eta interes-taldeen beharrei erantzunda.

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ADIERAZLEAK
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskararen kudeaketa PLEAren kudeaketa-sisteman integratzea, Erabilera Planari jarraipena egiteko eta euskarak Akademian dituen erronkak Zuzendaritzak berak bideratzeko. ○ PLEAk eskaintzen duen formazioa euskaraz ere eskaintzeko estrategia adostea. 	PLEAk erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.
		Erabilera planaren eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
		PLEAren plan-estrategikoan eta prozeduretan hizkuntza-irizpideak txertatu dira.
		Euskara-planaren inplementazioa arlo guztietara hedatu da, eta hizkuntza-irizpideak ezartzeko arloetan egiten zaie jarraipena.
		PLEAn formazioa euskaraz eskaintzeko 2023/2027 estrategia definitu da.
LIDERGOA	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko arduradunek EP ezagutzea, bere egitea eta dagokien ardura-gunean hura bultzatzea eta haren segimendua egitea. 	PLEAko arduradunek parte hartzen dute EPren diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
		PLEAko arduradunek jarrera proaktiboa erakusten dute, EPan finkatutako helburuak bete daitez.
LANGILEAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak ezagutzea eta betetzea. 	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko EPari eta Hiei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.
		Langileek dagozkien Hlak betetzen dituzte.
		Langileek betetzen dituzte KPan zehaztutako eginkizunak.
		Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak PLEAn duen bilakaeraz.

<p>GAITASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Langile guztiek -jendaurreko eta ardura-funtzioetan daudenak, batez ere- haien lana euskaraz ere egiteko gaitasuna izatea. 	<p>Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.</p> <p>Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.</p> <p>Arduradunak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.</p> <p>PLEAn formazioa jasotzen duten langile publikoek EAEko bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko gaitasuna eskuratu dute.</p>
<p>EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAk normalizaziorako estrategia integrala adostea epe jakin batean formazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan eman ahal izateko. 	<p>PLEAn formazioa euskaraz eskaintzeko 2023/2027 estrategia definitu da.</p> <p>PLEAk euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldee.</p>
<p>HIZKUNTZA-KLAUSULAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko kontratu eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak ezartzea eta haien jarraipenerako sistema zehaztea 	<p>Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</p> <p>Hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</p> <p>Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari.</p> <p>Jarraipen sistematikoa egiten zaio hitzarmenetako hizkuntza-klausulak betetzen direla bermatu.</p>

ERABILERA

- **Erronka:** PLEAk kalitatezko zerbitzua bermatzea, herritarren eskubideak eta hizkuntza-berdintasuna lortzeko, euskararen barne-erabilera sustatuz; horretarako, eskaintza aktiboa egitea. Eta erakundeak urratsak egitea lan-hizkuntza euskara izan dadin.

ARLOA		HELBURU ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEAK
ZERBITZU-HIZKUNTZA	IRUDIA	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAko irudiari adi jarraitzea, aldakorrari batez ere, erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta hizkuntza-berdintasuna lortzeko 	PLEAko hizkuntza-paisaia osoa eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.
			PLEAko argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.
			PLEAk euskara erabiltzen du agerraldi instituzional guztietan.
			PLEAk euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.
	HERRITARREKIKO HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea (ahoz eta idatziz) eta hizkuntza-berdintasuna lortzea herritarrak eta ikasleak PLEAekin harremanetan jartzen direnean 	Euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten die PLEAk herritarrei, ahoz; herritarrek edo ikasleek hizkuntza aukeratu baino lehen.
			Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.
			Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.
			Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.
			Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei edo ikasleei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.

LAN-HIZKUNTZA	BARNE-HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ PLEAn lankideen arteko harremanean (ahoz eta idatziz) euskarak presentzia irabazten jarraitzea arlo eta eremu gehiagotan 	<p>Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.</p> <p>PLEAko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.</p> <p>Bilerak euskaraz egiten dira.</p> <p>Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.</p>
	KANPO-HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskaraz dakiten erakunde eta eragileekin harremanak euskaraz izatea, ahoz zein idatziz. 	<p>Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.</p> <p>Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.</p>
	PRESTAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> ○ B2tik gora egiaztatu duten langileek prestakuntza orokorra euskaraz jasotzea. 	<p>PLEAk euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra ertzainei.</p> <p>Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.</p> <p>Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei.</p>
	BALIABIDE INFORMATIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> ○ Hizkuntza-eskakizunak egiaztatu dituzten langileek baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea. 	<p>Euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak daude.</p> <p>PLEAko langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak.</p>
	SORTZE-HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskaraz sortzeko gaitasuna duten langileek euskaraz sortzea, betiere euskaraz lan egiteko gaitasuna hobetzeko. 	<p>Euskaraz sortzen dira dokumentuak.</p>